

# BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

522. zka.
XIII. urtea
2005eko martxoaren 18a

## Susana Mujika

# «Iparragirre sariak ilusio handia egin digu Faktoriako kideoi»

[ EZAGUNAK LAGUN ] JOXE ARANTZABAL • [ KIROLA ] ESKUBALOI TALDEAK







**Pintxotan**

aukera zabala



P. Muguruza, 7
Tel: 943 74 16 76

# ZOZOAK BELEARI...





**Imanol Larrañaga**

Uxue, sendagileak zeinengana joaten dira gaixotzen direnean? Pertsona berak janzten al ditu gaixoaren pijama eta sendagilearen bata zuria? Eta, ertzainek egiten al dute putz autoan edanda doazenean? Eta abadeak bekatuan jausten direnean, konfesatzen al dira?

Lasai, ez dut ezer erretzen jardun-eta! Aurreko batean sendagile bati irakurri nion elkarrizketarekin akordatu naiz. *Automedikatu* egiten zela zioen aho txikiarekin, gaizki egiten zuela onartzen bezala. Ez zait horrenbesterako begitantzen. Hori bai dela *kabezerako* benetako medikua. Niri ere beti eman izan dit erreparoa medikuarengana joateak. Zorionez, Esnaola erretiratu zenetik ez dut traba handiegirik egin anbulatorioan. Badirudi Eusebiorekin batera ezkutatu zirela nire ondoezak.

Pena eman zidan Esnaolak Elgoibartik alde egin zuela jakiteak. Bazihoala esan gabe alde egin zuen Donostiara. Kontsultako gaixoak agurtu gabe. Hainbeste urtean elgoibartarron min-hotsak eta penak entzuten jardun eta gero, estimatzen dugula esaten laga behar zigun gutxienez. Hurrengoan, medikuarengana joatea tokatzen zaidanean, pena emango dit Eusebioren "*Keai, Larrañaga?*" ez entzuteak. Faltan botako dut. Urak dakarrena urak omen daroa, eta jendea ere, etorri bezala, joan egiten da.

**«Ertzainek egiten al dute putz autoan edanda doazenean?»**
Imanol

**«Dena ordezkatu daiteke: pertsonak, izenak eta kafeak»**
Uxue

**Uxue Alberdi**

Esnaolak hutsik utzi zuen gauza bakarra mediku aulkia zela pentsatuko zuen agian. Gauza txikia baikara pertsonok horretaz ohartzeko bezain ausartak garenean.

Baina segur aski Esnaola ez zen txikitasunak duen gauza handienaz ohartuko agur esan gabe alde egin zuenean: horren txikiak izanda ingurukoen beharra dugu garena izateko. Saiatu ondorengoa imajinatzen. Imajinatu bi urte herritik kanpo eman ostean autoan zatozela Lerungo zubitik. Demagun, herriko sarreran ez dagoela dantzalekurik. Pentsa zubia zeharkatu eta *Lanbroak* izena duela, demagun, *Txoko*. Eta barran ez dagoela pintxorik eta zerbitzariak izena duela, demagun, Adolfo. Adolfok ez dizu ezer galdetu gabe tea limoiarekin atera. Bi aldiz errepikatu diozu zer nahi zenuen. Gero San Frantzisko kalean sartu zara. Egunkaria nahi duzu, baina beti erosten zenuena falta da. Kalea zeharkatzean inork ez dizu *ke pasa Txino*, esan. Bultza egin dizun aitonak *perdone, joven* esan dizu, gazteleraz.

Dena ordezkatu daiteke, izan ere: pertsonak, hizkuntzak, izenak, egunkariak, kafeak. Baina aldatu guztiak batera eta saiatu zure burua definitzen.

Esnaolaren aulkia baino hutsago ginateke.

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

> "Bere buruaz amestu duen ideiari zenbat eta gehiago hurbiltzen zaion, orduan eta egiazkoagoa da bat"
>
> Pedro Almodovar

## Haurdunaldian

28 asteko haurdunaldia daukat. Duela hamabost egun emaginarekin txanda neukan. Haurdun gaudenoi hilabetero egiten diguten kontrola nuen. Anbulategira joan nintzen eta emakumea gaixorik zegoela esan zidaten, badirudi erizainek abisua pasa zutela baina ni ez ninduten etxean topatu. Kontua da hurrengo astearterako eman zidatela txanda. Astearte goizean goiz jo zuen telefonoak, anbulatorioko erizain bat zen eta emaginak gaixo jarraitzen zuela esan zidan

Lehenik eta behin erizainak eta telefonoa hartzen ibiltzen diren pertsonak eskertu nahi ditut eurak baitira arrazoiak eta argudioak ematen ibili behar direnak eta enkarguak zorrotz eta zuzen hartzen ibiltzen direnak.

Halere, nire galdera hurrengoa da: zer gertatzen da arazorik badugu, txikiena bada ere? Eta gehiegi gizendu baldin banaiz? Ez al dauka Osakidetzak edo dagokionak horrelako kasuetan bere ordez pertsona bat jartzeko asmorik? Ez al dauka emakumeak gaixo egoteko eskubiderik? Eta zergatik jasan behar dugu hau? Haurdunaldiak ez du itxoiten, ezta ginekologoarengana joateko nahikoak ez diren arazoek ere. Gainera larrialdi kasuetarako ere ez dago emaginarik. Erditze ikastaroa geldirik egon da. Atzo lanean astekoa zen hamabost egun bajan egon ondoren. Gaixotasuna luzerako denean ordezko bat jartzea beharrezkoa ikusten dut.

**A. E. - 44165695-Z**

## Eskubide demokratikoen errespetua: Ilegalizaziorik ez !!

Euskal herritarrok hamarkadatan indarrean daraman egoera ez-normala jasan ohi dugu. Horren adierazgarri dira mota guztietako hilketak, debekuak, gartzelaratzeak, eta gure herritik alde egin beharra. Eta azkeneko hamar urteotan, aipatu arazoak are nabarmenagoak izan dira. Gaur egun, gero eta gehiago dira gure herriak behar duen baketze eta soluzioaz hitz egiten dutenak. Horrek aldaketa garrantzitsuen aurrean egon gaitezkeela pentsatzera eramaten gaitu.

Aldaketaz hitz egitea ondo dago, baina Euskal Herrian aukera berriak agertzen ari diren momentuan, garrantzitsua da gogoratzea aldaketa hori, baliagarria izan behar dela gure herriak behar duen bakea lortzeko, gure gizartearen borondatea antolatu eta babestuko duen akordioa lortzeko eta behingoz, urte gehiegitan jasan dugun sufrimenduekin bukatu eta eskubide guztiak beteta gertatu daitezen. Hori dela-eta, kezka berezia agertu nahi dugu datorren hauteskunde-deialdian, dagoeneko iraganeko praktikatzat genuen ideien bazterketa eta pertsekuziorako joera dagoelako oraingoan ere. Hainbat espainiar agintarik iragarri dutenaren arabera, hainbat herritarri hauteskundeetan lehiatzeko eskubidea ukatzeko asmo nabaria baitago. Horrek, testuinguru honetan bakerako perspektibak eta itxaropena erasotzea suposatzen du. Herritar guztiok hauteskundeetan parte hartzeko dugun eskubidearen aldarrikapena egin nahi dugu eta baita Gobernu espainiarreko agintarien aldetik iragarri den mehatxua salatu ere.

**Ezker Abertzalea**

E-POSTA
**barren@elgoibarkoizarra.com**

### OHARRA

Aste Santuko oporrak direla-eta, BARREN astekariaren hurrengo alea apirilaren 1ean banatuko da. Mila esker.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

Laguntzailea Elgoibarko Udala Zuzendaria Jasone Osoro Kazetariak Ainhoa Andonegi, Asier Orbea Publizitatea Amaia Erkizia Maketatzailea Jaione Unanue Kolaboratzaileak Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives Esaera zaharra Gotzon Garateren liburutik Inprimategia Gertu Koop. E. Tirada 4.300 ale Lege gordailua SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## GALDERA

• Herriko parke berriak urte batetik zortzi urtera bitarterako umeentzako dira. 10 urtekoak ezin al dira bertan ibili?: "10 urteko ume batzuk esan digutenez, ez diete parke berrietan jolasten uzten, zortzi urte baino gehiago dituztelako. Hirigintzara deitu dugu, eta esan digutenez, ez da komenigarria zortzi urtetik gorakoak parkean ibiltzea, bertako jolasak puskatu egin daitezkeelako. Baina kontuz ibiltzen badira, ez dago arazorik, eta inork ez diete ezer esango, gainera oso zaila da edonorentzat zortzi urteko edo hamar urteko umea den bereiztea".

## TXALOAK

• Elgoibarko eskubaloi zaletuek Sanlo ANTT eskubaloi taldea txalotu nahi dute: "Zorionak lehenengo mailara igo zaretelako. Denboraldi hasieran jende askok ez zuen uste lortuko zenutenik, baina azkenean mailaz igo zarete. Txalo bero bat entrenatzaile eta jokalari guztiei. Jarraitu horrela!".

• Herritar batek Udal Musika Banda txalotu nahi du. "A zer nolako kontzertua eman zuen igandean! Egia esan, kontzertua dagoen bakoitzean gozatzen egoten gara entzuten ari garen bitartean eta egun osorako pozik ateratzen gara". Herritar honek, gainera, Bandan sartu berri diren hiru neskei zorion bereziak eman nahi dizkie.

## KEXAK

• Ume batzuk esan digutenez, Leku Ederren jolasean ari direla, baloiak bertan dagoen lokal huts batetara erortzen zaizkie: "Leku Ederreko etxeen azpian lokal hutsak daude, eta horman zuloak dituzte. Futbolean jokatzen ibiltzen gara, baloi mordoa erori zaizkigu lokalera eta ezin ditugu berreskuratu. Lokala inorena ez bada, zuloak behintzat estali ditzatela".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49






## IÑAKI GOÑI

ELGOIBARKO EUSKADIKO KUTXAKO BULEGO ZUZENDARIA

*Datozen sei urteetan hipotekak igoko direla esan berri dute. Adituen esanetan, hileko ordaintzen den kopurua 78 eta 204 euro bitartean igo daiteke.*

• **Hipoteka dutenek beldurtzeko arrazoiak al dituzte?** Hipotekaren zenbatekoaren eta epearen araberakoa da. Interes tasak minimo historikoetan daude, baina poliki-poliki igotzen joango dira. Adituen esanetan 2007rako puntu eta erdi igo daitezke. 30 urtean ordaintzeko 200.000 euroko mailegu bat (ez da oso arraroa Elgoibarren), 821 euro ordaintzetik 1.021 euro ordaintzera pasako ginateke.

• **Interesak baju daude eta etxeak garesti. Egoera honek eztanda egingo al du?** Merkatu honek ezin du horrela jarraitu, burbuilak eztanda egin dezake. Makalaldi bat nabari da jadanik. Etxebizitzak saltzea gehiago kostatzen da, merkatua asetzen ari den seinale. Ez dut esan nahi prezioak jaitsiko direnik, baina igoerak IPC-aren kopuru antzerakoetan igo daitezke, agian, hemendik lasterrera.

• **Etxea erosteko momentua da ala zain egotea komeni da?** Ezin da orokortu. Norberak bere egungo egoera eta etorkizunean izan dezakeena aztertu beharko lituzke. Arriskurik handiena egungo egoera ekonomikoa aldatzetik etor liteke, eta aldatzen ari da.




## Gonbidatua

Nagusien munduan gonbidatua sentitzen zen, bizilagun tenporala. Inguruko elementu guztiak haundiegiak sentitzen zituen, objektu erraldoiez inguratua somatzen zuen bere burua. Baina proportzioak deuzesteko trebezia izugarria zuen; horri esker, bere itsasontzia, txirrina, elikopteroa, automobila edo trailerra, zena zela, lehena izaten zen lasterketa, ihesaldi edo expedizio guztietan, ez zegoen munduan bera baino kapitain, txofer edo supergizon azkarragorik. "Dena da posible" lemapean jaiki eta oheratzen zen. Ausarta zen oso. Eta gaztea, oso gaztea. Berak behintzat hori zioen, gonbidatua sentitzen zela nagusien munduan, bizilagun tenporala.

*Eguzkiñe Aranberri*

## komikia




Kokoe 10

# [AKORDATZEN NAIZ]



## JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

## «Soldadutza»

Burgosen egin naban soldadutzia. Kaballerixan egon nitzan eta permiso bat egoten zan bakarrik, hillabetekua. Baiña Burgosen zaguan koronel medikua. Chocolates Saint Gerons-eko txokolateruan anaixa zan, medikua, Jose Mari Lekuona. Gu bizi giñan etxia harena zan, gu giñan errenteruak.

Mediku horren anaixa zan Mendaroko parrokua. Haren bittartez abixau ziuen hari nola han nenguan. "Que se vea conmigo". Jun nitzan. Arazorik banaukan berari deitzeko esan zidan.

Haretxen bittartez etorri nitzan arreban bodara zortzi egun, eta gero beste hiru egun-edo gezurra esanda (katalan lehengusu batzuk daukadaz nik Bartzelonan. Eta katalanak etorri zirala eta ikusi nahi nittuala). *Subida Arrate* karreria ikustera etortzeko zan. 15 hillabete egin nittuan soldadutzan.

Oin horren damurik ez daukat. Nik negua allegatzen zanian, eukitzen nittuan jota belarrixak eta eskuak ospelekin, jota errebentauta, tallarrian bajia hartzeraiño. Bendauta eta hola. Urtero, fijo! Lagunartera ere jun eziñ. Gero, Burgosera tokau jatanian soldau jute hori, ba, gure ama zanak: "*han pasau bihar dittuk onak!*".

Gaur arte, sekula ez ospelik. Ez dakit han jan genduzen sardiñena eta antxoillena zan, edo...

# [GURE BERBAK]

## Onomatopeiak (eta 2)

Juan zan astekuari jarraittuz, gaurkuan ere onomatopeiak hizpide. Hotsak imitatzen dittuela esan gendun, eta batzuetan izenak ere sortzen dittuela: *krakatekua, zurrutadia, zurrumurrua*, eta abar. Hona adibide gehixago:

- *Hi, bota egixok kafiari patxar txorrostada bat!*
- *Ur apurtxo bat botatzen jauat bakar-bakarrikan landariari: hola egin, da ttak!*
- *Hi, etsi-etsixan zirt edo zart egiñ (erabaki) bihar juagu, gero, eh!*
- *Idixak atzian harri galanta hartu, eta, ezin badau ere, zazta-zazta-zazta eragiñ akuluakin.*
- *Txixa parrastadia egin jok umiak paretian.*
- *Euskeria ahiztu azkenian. Eskoletan laga ez, eta gero kalera jun, eta ttor-ttor-ttor, dana erderaz.*

*Jesus Mari Makazaga*


URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · Elgoibar
Tel-Faxa: 943 74 18 91
ASEGURUAK


Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570


MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

E Z A G U N A K

lagun

JOXE ARANZABAL

# «Medikuak minbizia nuela esan zidanean, lasaitu egin nintzen»

*Joxe Aranzabal arrasatearra da. Euskalgintzan makina bat lan egindako gizona da eta bera dugu tokiko euskal komunikabideen arloan aintzindarietako bat. Arrasate Press aldizkariaren sorreran izan zen eta BARREN astekaria martxan jartzen ere lagundu zigun. Gaur egun irakasle lanetan dabil Mondragon Unibertsitatean. Halere, guk oso bestelako arrazoiak direla-eta gonbidatu genuen Elgoibarrera. Joxe izan zen Ezagunak Lagun egitasmoa estrenatu zuen pertsona. Pasa den ostegunean, martxoaren 10ean, minbiziaren gainean hitz egin zigun. Izan ere, 2002ko irailaren 11n esan zion medikuak minbizia zuela.*



### MENDIKUAK ESAN DIT MINBIZIA DUDALA

Mina dugunean joaten gara medikura. Edo, tarteka, rebisio txikiren bat egitera. Kontua da, medikuara joan zen batean zerbait arraroa topatu ziotela Joxeri eta hor hasi zen bere bizitzaren etapa berri bat. Frogen emaitzak garbiak ziren. Joxek minbizia zeukan, eta halaxe esan zion medikuak. 2002ko irailaren 11 zen. Askorentzat suertatu da madarikatua 11 zenbakia.

### HIRU LIBURUAK: LUIS ROJAS MARCOS, MARIAN SUAREZ ETA LANCE AMSTRONG

Betidanik izan du gustuko irakurtzea Joxek. Emakume batek esan zion minbizia gerra bat zela; eta gerrarako prest egon behar zuela. Gerrarako erabili zituen armak besteen bizipenak izan ziren. Horregatik irakurri zituen hiru liburu: Luis Rojas Marcos psikiatra New York hirian bizi da. Irailaren 11n paziente baten telefono deia jaso eta kalera atera zen. Handik gutxira goitik behera erori zen bere bulegoa zegoen eraikuntza. Gertakizunak orbaina laga zuen bere bizitzan. Eta liburua idatzi zuen. Lance Amstrong txirrindulariak ere barrabiletako minbizia izan ostean irabazi ditu sei Tour. Hark erakutsi zion Joxeri barrutik indarra ateratzen. Marian Suarez, berriz, eredu polita izan zen bizipoza mantentzeko.

2005-3-18



*Ilea erortzen hasi zitzaionean, koinata Edurnek makina pasa zion.*

## Ilea erori zait

Bazekien ilea eroriko zitzaiola. Kimioterapiak gogor erasotzen du gaixotasuna, baina baita defentsak ere. Gizakia ahul geratzen da. Ahul egon behar du gero indartsu sentitzeko. Fenix hegaztia bezala, errautsetatik berpizten dena. Joxek berak esan zigun minbizia zuela jakin zuen une berean lasai geratu zela. Askoz okerragoa izan zela aurreko guztia, zer zuen jakin ez eta mamuak buruan bueltaka zituen garaia. Minbizia gaixotasun bat da eta senda daiteke. Hori esan zion medikuak. Bazekizkien ondorioak ere. Ilea eroriko zitzaiola, esaterako. Baina, goiz batez, komunean ilea barra-barra erortzen zitzaiola ikusi zuenean ahul sentitu zen, sentibera. Maria Suarezek, esaterako, ez zuen ikusi bere burua burusoil sekula. Ileapaindegira joaten zenean ispilua estali egiten zioten. Zapia eta ileordea eramaten zituen beti, ilea berriz ere hazi zitzaion arte. Joxeri koinatak moztu zion ilea.

## Gaixotasunak ez nau zapaldu.

Liburua argitaratu berri du Joxe Aranzabalek. Bertan jaso ditu www.sustatu.com helbidean plazaratu zituen testuak. Izan ere, Joxek oso argi zeukan gaixotasunari aurre egiteko abiapuntua gaixotasunaren gainean argi hitz egitea zela. Horregatik erabili zuen internet, zer zuen eta nola sentitzen zen kontatu nahi zuelako. Kontatu egin behar zuelako. Liburuaren azalerako aukeratu zuen argazkia gustuko du Joxek. „Irribarrez nago. Argazkiak islatzen du gaixotasunak ez nauela zapaldu".

## Nola esan Mireni eta amari?

Miren Joxeren alaba da. Alabari eta amari minbizia zuela esan nahi zien. Argi hitz egin. Eta hala egin zuen. Mirenek negar egin zuen, "zergatik niri? Zergatik nire aitari?". Baina gero normaltasunez jokatu zuen. Gurasoek ez zioten ezer ezkutatu eta minbizia, kimioterapia eta transplantea hitzen esanahia ezagutu zuen txikiak. Mirenek badaki gurasoek ez diotela inoiz gezurrik esango. Joxeren amak ere uste baino hobeto hartu zuen berria. Egiak min egin dezake momentuan. Baina gezurrak bizitza osoa irauten du.

## Arrebaren transplantea

Kimioterapia ez zen nahikoa. Minbizia erabat gainditzeko modurik eragikorrena transplantea zela esan zion medikuak Joxeri, medula transplantea. Joxek bost anaia-arreba ditu eta horietatik bakarra zen bere ADNarekin konpatiblea, Fatima. Fatimari zor dio bizitza Joxek, berak odol garbia eman ziolako.

## Javier Camararen antza

Negar asko egin du Joxek. Oraindik ere maiz emozionatzen da eta begiak bustitzen zaizkio. Baina umoreak ere badu bere lekua gaixotasunean. Beharrezkoa da barre egitea. Bizirik zauden seinale dira biak: malkoak eta irribarrea. Ospitalean zegoela, burusoil eta betaurrekoekin, Javier Camararen antza zuela esan zioten Joxeri. Berak ez zekien nor zen. Orduan jakin zuen aktorea dela, komedia egiten duela. Paradoxikoa.

## Heriotza: nola esan lagunei agur

Joxek ez zuen heriotza aipatu hitzaldian. Existituko ez balitz bezala. Baina galdera egin genionean, ea apropos ihes egin zuen jakin asmoz, ezetz esan zigun. Heriotzaren mamua behin baino gehiagotan azaldu zaiola aitortu zigun, eta bere kezkarik handiena lagunei agur nola esan izaten zela. Begiak bustita kontatu zigun. "Heriotza iristen zaidanean igarriko dut". Eta, tokatzen zaionean, heriotzari aurrez aurre eta lasai begiratuko diola esan digu. Halere, borroka gaindituta, indartsu sentitzen da. Gerra handia emango du oraindik Joxek. Eman dezala.



*Transplantea egin aurretik isolatuta egon zen hainbat egun.*

## [ PROTAGONISTA ]



### IñigoArkauz

Iñigo Arkauz, Elgoibarko PP alderdiko zinegotzia, Gipuzkoako PPko Gaztediaren presidente berria izango da aurrerantzean. Donostiako Miramar Jauregian ospatu zen PPko Belaunaldi Berrien XII. Kongresua joan zen martxoaren 5ean, eta bertan, aho batez aukeratu zuten 26 urteko gazte hau presidente posturako. Iñigo Arkauzek hiru helburu nagusi aipatu zituen bere diskurtsoan: Politikari berriak hezitu, alderdirako ideia berriak proposatu eta gazteentzako politika egin, lana, etxebizitza edo hezkuntza bezalako alorretan aurrerapausoak emanez.

## [ NOTIZIA ]

# 3.356 elgoibartar merkadilloa herri barruan mantentzearen alde azaldu dira

Elgoibar Bizirik Herri Plataformak antolatutako erreferenduma joan zen larunbatean bukatu zen. Guztira 3.378 herritarrek hartu du parte bertan, eta horietatik 3.356 lagunek merkadilloa herri barruan mantentzearen aldeko botoa eman dute. 16 lagun azoka Sigmara eramatearen alde agertu ziren, eta beste 6 lagunek zuriz bozkatu zuten.



**Helburua lortu da**

"3000 baietz" izena jarri zioten kanpainari eta zifra hori gainditzea lortu dute. Plataformako kideek eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiete erreferendumean parte hartu duten herritar guztiei, izan ere, egoera zail honetan jendeak bikain erantzun du. Hurrengo pausoa, emaitza hauekin zer egingo duten erabakitzea izango da. Bestalde, Udalaren jarrera itxia eta jarritako oztopo guztiak salatu nahi dituzte. BARREN Marivi Agirregomezkorta alkatearen hitzak jasotzen saiatu da, baina gai honen gainean ez daukala ezer esateko erantzun digu.

## [ ZENBAKIA ]

**6010**

Euskadi Gaztea irratsaioko "Hi bizi haiz hi" saioak 6.010 euro lortu ditu Elgoibarko Miski Elkartearentzat eginiko enkantean. Diru honekin Cusco hiriko 225 gaztetxo eskolatuko dira. Gemma Agirregomezkorta Perun da dagoeneko, eta bildutako diru kopurua zenbatekoa zen esan ziotenean emozionatu egin zen. Zorionak!

## asteko [ ARGAZKIA ]



Zuhaitz Eguna ospatu zen joan zen ostiralean, martxoaren 11n. Goizeko 9:00etan elkartu ziren 6. mailako ikasleak Melitongo hiltegi zaharrean, eta Albitxuriko zabortegi ingurura abiatu ziren. 15 ikasle inguru bildu ziren guztira, eta ordu eta erdian, 25 zuhaitz landare landatu zituzten Albitxuriko lursail batean. Haritz Amerikarra izeneko zuhaitzak landatu zituzten, eta esan digutenez, hauek hazterako urte askotxo pasatuko dira, izan ere, zuhaitz mota honen hazkunde prozesua oso motela da-eta.

# Ane Zabala izango da Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko lehendakari berria



Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak bazkideen urteko Batzar Orokorra egin zuen martxoaren 14an, eta bertako gairik garrantzitsuena lehendakari eta Zuzendaritza Batzorde berriaren aurkezpena izan zen. Honela, Beñat Bilbaok, Ane Zabalari (tente, ezkerretik hasita hirugarrena) utziko dio lekua. Zuzendaritza Batzordeari dagokionean, lau militante eta bi langile profesionalek osatuko dute: Imanol Larrañaga Elkarteko dinamizatzailea, Amaia Arrizabalaga Gestio Taldeko arduraduna, Ane Zabala presidentea, eta Amaia Lariz, Ander Soraluze eta Gaizka Argarate militanteak.

Bazkideek ontzat eman zuten, bai lehendakari berria, eta baita Zuzendaritza Batzordea ere, beraz, lehen bailehen hasiko dira lanean.

**2005. urterako asmoak**

Bestalde, Elgoibarko Izarrako proiektuetako teknikari bakoitzak 2004an egindakoa eta 2005. urterako dituzten asmo eta helburuak azaldu zituen. Honetaz gain, Gestio Taldeko arduradunak, Elkarteak 2004an izandako gastu eta sarrerak eta 2005. urtean Elkarteak izango duen aurrekontua ere azaldu zituen.

## Madrilgo atentatua gogoratu zuten martxoaren 11n



Juan Jose Ibarretxe lehendakariak deituta, Madrilgo atentatuaren lehenengo urteurrenean, martxoaren 11n, kontzentrazioa egin zen Euskal Herriko herri gehienetan, eta Elgoibarren ere halaxe izan zen. Eguerdiko 12:00etan Plaza Handian duela urtebete izan zen atentatua gogoratu zuten. Jende dezente bildu zen Plazan. Ordu laurden batez kontzentrazio isila egin zuten eta bukaeran txalo zaparrada batez omendu zituzten atentatuaren biktimak.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Langabetuentzako Administraritza komertziala ikastaroa

Elgoibar BH Institutuak langabetuentzako Administraritza Komertziala ikastaroa antolatu du, INEMen dirulaguntzaz. 809 orduko ikastaroa izango da, eta antolatzaileen asmoa martxo amaieran hastea da. Interesatuek, Elgoibar BH Institutuan eman dezakete izena. Informazio gehiago 943 74 80 19 telefonoan.

### Preso elgoibartarrak gose greban

Inazio Iriondo, Fernando Bert eta Sebas Etxaniz preso elgoibartarrak gose greban daude martxoaren 15etik. Euskal Preso Politikoen kolektiboko 700 kideek ekin diote mugagabeko gose grebari, beraien estatus politikoa aldarrikatu eta prozesu politikoan parte hartzeko Euskal Herriratzea eskatuz.

### Familia euskaldunak behar dira

Udan euskara ikasten ari den jendea hartzeko prest dauden familia euskaldunak behar dira. Helburua euskara ikasleei familia euskaldunetan egonaldiak egiteko aukera eskaintzea da, horrela, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera emateko. Egitasmo honetan izena emateko epea apirilaren 15ean bukatzen da. Interesatuek Udaleko Euskara Zerbitzuan jaso dezakete informazio gehiago (943 74 43 66 edo 943 74 44 47 telefonoetan).

### Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko lau txeke banatu dituzte Merkatu Plazako dendariek. Irabazleak Maria Luisa Zapata, Irune Gonzalez, Maria Jesus Intxausti eta Ana Mikele izan dira. Dirua erosketa txeke moduan jaso dute, eta Merkatu Plazan gastatu beharko dute. Zorionak!

Martxoaren 24tik 28ra ospatuko da aurten Aste Santua.

# Aste Santuko oporrak bidaiatzeko aprobetxatuko al dituzu?

**AMAIA GOROSTIZA**
Etxekoandrea
41 urte



“Ez, haurdun nago eta hemen inguruan geldituko naiz, baina ez daukat etxean egoteko asmorik, egun pasa ibiliko gara. Aste Santua motzegia da bidaiatzeko.”

**JUANI ARAKISTAIN**
Dependienta
40 urte



“Ez, lana daukat eta hemen geldituko naiz. Egun pasa ibiliko gara alde batetik bestera, eta deskantsatzeko aprobetxatuko dut. Urrutira joateko opor motzak dira.”

**JURDAN EZENARRO**
Arotza
23 urte



“Ez dut erabaki, baina seguruenik eskiatzera joango gara. Aste Santuko alderdi erlijiosoa ez dut kontuan hartzen, niretzako opor kutsua dauka gehiago.”

**LIERNI ASTIGARRAGA**
Ikaslea
13 urte



“Ez, herrian geldituko naiz. Eskolatik etxeko lan dezente bidali digute, eta horiek egingo ditut, eta denbora libre apur bat daukadanean kalera aterako naiz.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Ikusi al duzu inoiz zure inguruan bulling edo eskola jazarpenik?

**BAI %48**

“Bai, nire azalean bizi izan nuen. Beste gelakideak estatus sozial altuagokoak zian eta erdaldun giro bateko ia euskaldun bakarra nitzan eta horrek ere zerikusi haundixa izan zuen.”

**EZ %52**

“"Bulling" oso egoera gogorra da, eta ikusi izan dudana bazterketak eta ondo konpontzen ez direnen arteko borrokak dira. Beti egon eta egongo dira. Gakoa erasora ez pasatzea da.”

**Datorren asterako....**

Azken urteetan geroz eta ume lodi gehiago dago. Epidemia hitza ere aipatu dute adituek.

**Lehen baino haur lodi gehiago ikusten al duzu zure inguruan?**

Bidali SMS bat:

**7744 BARREN** (espazioa) erantzuna

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

[ GOMENDIOA ]



Asier Arzamendi
OINBERRI
Podologia zentroa

## Kailuak

Gaur egun oso ohikoa da jende gazteak ere izatea kailuak. Zergatik? Badirelako hainbat ohitura batere onuragarriak ez direnak oinentzat. Esate baterako hezetasuna, oinetakoek eragindako presioa, oinetako estua eta punta luzeduna erabiltzea eta abar. Oinen postura txarrak ere kailuak sortzen ditu behatzen goiko aldean edo oinaren azpian eta horregatik komeni da oinetako bigunak eta malguak erabiltzea.

Podologoa da oina bere onera ekartzeko egin behar duguna esango digun medikua. Kailua zergatik atera den jakin eta horren arabera egokitutako neurriak hartzea komeni da. Hala ere, begibistakoa da gehiegizko pisuak edo hainbat gaixotasunek ere eragiten dutela oinen osasunean.

Noiz komeni da podologoarengana joatea:

• Arazoa nabarmena denean, inflamazioa dagoenean edo infekzioa sortzen denean.

• Gaitza sendatzeko gai ez garenean.

• Kailuak edo gogortasunak kendu eta berriz ateratzen direnean.

• Azala kostata sendatzen bada edo zauri txikiak agertzen badira.

• Diabetea edo bestelako gaitzak ditugunean: hezurretakoak, zirkulatorioak...

Edozein zalantzaren aurrean, onena profesionalengana joatea da.

# [ OSASUN GIDA ]

**MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK**

Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 635 71 55 03
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

**OPTIKAK**

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**ORTOPEDIAK**

Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

**PODOLOGOAK**

Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra

# REBECA TOLENTINO

## FILIPINAS [ASIA]

# «Elgoibarrera iritsi ziren atzerritarren artean lehenetarikoa izan nintzen»

Filipinako errepublika Ozeano Barean dagoen 7.100 irlatik gorako artxipielagoa da. Herrialdeko irlarik handienenean (Luzon) dago hiriburua, Manila, ia 10 milioi biztanleko hiri erraldoia. Rebeca Tolentino bertakoa da, baina ia 20 urte daramatza Elgoibarren eta jadanik bertakoa sentitzen dela aitortu digu.



**Noiz atera zinen Filipinatik?**

1982an etorri nintzen Espainiara, Asturias aldera hain zuzen ere. 22 urte nituen eta Filipinako folklore talde bateko abeslaria nintzen. Dantzalekuetan eskaintzen genituen ikuskizunak. Garai hartan modan zeuden abestiak abesten genituen. Bizimodu gustukoa nuen, baina hemen fama txarra ematen du dantzalekuetan lan egiteak eta aurreiritzi horiek jasan ezin nituenez laga egin nuen. Haurrak zaintzen hasi nintzen eta jatetxe txinatar batean ere aritu nintzen lanean abeslari gisa.

**Eta nolatan iritsi zinen Elgoibarrera?**

Madrilen ezagutu nuen Pablo, nire senarra. Elgoibartarra da eta hona etortzera animatu nintzen 1987. urte bukaeran. Urtebete elkarrekin bizi ostean, ezkondu egin ginen. Bi alaba ditugu, biak euskaldunak.

**[«Etorri berritan, jendeak nahiko arraro begiratzen zidan»]**

**Nola hartu zaituzte Elgoibarren?**

Oso ondo. Hasieratik gustatu zitzaidan Elgoibar eta jendea oso eskuzabala da. Etorri berritan jendeak nahiko arraro begiratzen zidan, Elgoibarrera iritsi diren lehenengotariko atzerritarra bainintzen. Denborarekin ohitu egin nintzen eta jendea ere ni ikusteaz.

**Non bizi zinen Filipinan?**

Filipinako hiriburuan, Manilan. Asko gustatzen zait nire herrialdea eta gustura bizi nintzen. Egoera ekonomikoa hobea balitz bertan biziko nintzateke. Netorren lekuari buruz gauza askorik jakin gabe iritsi nintzen. Pentsa, arropa gehiegirik ez ekartzeko gomendatu zidaten hemen oparituko zidatela esanaz! Azaroa zen, hotza egiten zuen eta nik etxean laga nuen anaia jostunak urteetan niretzako egindako praka bilduma.

2005-3-18



**Zenbatean behin itzultzen zara?**

Zazpi urte pasa ziren lehen aldiz itzuli aurretik. Alabak jaio ostean, beste zazpi urte egin nituen joan gabe. Orain hiru urtean behin joaten naiz ahal badut. Nire amari ni han edukitzea gustatuko litzaioke. Berak ere nahi du etortzea, nola bizi naizen ikusteko. Munduaren beste puntan daude, ordea, hegazkinez 24 ordura. Alabek hura ezagutzeko gogoa nuen eta asko gustatu zitzaien.

**Euskal Herriko gustuko txokoa?**

Donostia eta Zarautz. Eguzkia hartzea ez dut gogoko, baina bai kostaldea. Filipinasek ere izugarrizko hondartzak eta paisaiak ditu. Gaztetan gurasoek asko babesten ninduten eta gutxitan lagatzen zidaten bakarrik ibiltzen.

**Euskaldunak eta filipinarrak ezberdinak al gara izakeraz?**

Bai, filipinarrak irekiagoak dira. Traturako errazak eta eskuzabalak dira. Lagun berri bat ezagutu eta errazago gonbidatzen da etxera, adibidez. Ez zaie mahaian plater bat jartzea kostatzen.

**Zer eramango zenuke Euskal Herritik Filipinara?**

Hemen aberats eta txiroen arteko ezberdintasunik ez da apenas igartzen. Filipinan, berriz, oso nabarmena da. Pobreak behartsuegiak dira. Bestela, hara joaten naizenean hemengo kafea edateko irrikitan egoten dira familiakoak, ama batez ere. Kafea badago han, baina ez dago atxikoriarekin nahasteko ohiturarik.

**Eta Filipinatik hona ekarri?**

Gabonak ospatzeko modua ekarriko nuke. Kontsumismo eta oparietatik haratago Gabonetako izpiritua nabariago ageri da. Familiakoekin batu eta elkarrekin egotea nahikoa opari da.

**Asko aldatu al da zure jaioterria?**

Bai, baina txarrera. Etxe asko eraiki dituzte bata bestearen gainean. Jende gehiegi bizi da (ia 80 milioi biztanle) eta ez dago denentzako lekurik. Planifikazio familiarra falta da, baliabide ekonomiko gutxi du jendeak eta mantendu ahal direnak baino haur gehiago jaiotzen dira.

**Zer hizkuntza hitz egiten zenuten Manilan?**

Tagaloa eta ingelesa. Filipinarren gehiengoa defendatzen da ingelesarekin. Alabekin gazteleraz hitz egiten dut, baina beraiek zuzentzen naute. Euskara piska bat ulertzen dut ileapaindegian jendeari entzundakotik. Alabek euskaraz gazteleraz baino hobeto berba egiten dute.



FILIPINA

- Hiriburua: Manila
- Azalera: 300.176 $m^2$
- Biztanleria: 76,5 milioi (2001)
- Dentsitatea: 3923,86
- Langabezi tasa: %11,1
- Klima: Tropikala
- Alfabetatze maila: %95a
- BPG: 1009 dolar




*Rebeca ama, ahizpa eta honen senarrarekin.*

elkarrizketa...



# Miren Larrañaga



MIREN LARRAÑAGA ELGOIBARTARRA INGELES FILOLOGIA IKASTEN HASI ZEN, BAINA BUKATU AURRETIK, BESTE NORABIDE BAT EMAN ZION BERE BIZITZARI: "TRIPULANTE DE CABINA DE PASAJEROS" IZENEKO 4 HILABETEKO IKASTARO BAT EGIN ZUEN BILBON, PRAKTIKAK MADRILEN, ETA AZAFATA LANETAN HASI ZEN. 6 HILABETEZ ARITU DA KANARIETAN LANEAN, ETA ESPERIENTZIA BIKAINA IZAN DEN ARREN, EZ DU BERRIZ BERTARA ITZULI NAHI. 23 URTEKO GAZTE HONEK, ALTURA HANDIKO ABENTURAK KONTATU DIZKIGU GAURKOAN.

## "Azafata lana eta egonkortasuna bateratzea oso zaila da"

**Nola hasi zinen azafata lanetan?**

Ingeles Filologia ikasten ari nintzela, beste zerbait egin behar nuela erabaki nuen, eta mundu honek betidanik erakarri nauenez, "Tripulante de cabina de pasajeros" ikastaroa egin nuen Bilbon. Praktikak egitera Madrilera joan nintzen. Gauza mordoa ikasi nuen: hegazkina uretara erortzen bada zer egin, edo desertuan, suari aurre egiten... Proba fisiko desberdinak gainditu behar izan genituen. Oso polita izan zen. Gero kurrikulumak bidali nituen konpainia desberdinetara, eta lanean hasi nintzen.

**Non ibili zara lanean?**

Gran Canarian egon naiz, Air Europa konpainian. Sei hilabeteko lana izan da. Azafata lanak alde onak eta txarrak dauzka. Hilean egun gutxi egiten dira lan eta oso ondo irabazten da, baina kontratuak sei hilabetekoak izaten dira. Gero kalera beste sei hilabetez, gero berriz kontratua berritu... Egonkortasuna oso zaila da.

**Nora egiten zenituen bidaiak?**

Gehienak Europako herrialdeetara izaten ziren. Espainian gutxiago. Luzeenak Suedia eta Norvegiara.

**Zein ezaugarri eduki behar dira?**

Fisikoki dena begiratzen digute: pisua, altuera, ikusmena... Igeriketa frogak ere gainditu behar dira. Fisikoki ondo egotea oso garrantzitsua da. Honetaz gain, egunero gure lanaren azterketa egiten dute.

**Ba al dago mutilik lan honetan?**

Oraindik gutxi, baina gero eta gehiago. Italiako konpainietan adibidez, gehienak mutilak dira.









## "Suediatik bueltan larrialdietarako ate bat apur bat irekita zegoela egin genuen bidaia"

## "Behin bidaiari bat jo nuen. Edanda zegoen eta ipurdia ikutu zidan"

**Espero zenuena izan al da?**

Bai, oso polita izan da. Asko disfrutatu dut, baina luxu handiko bizimodua da. Denbora libre asko daukazu eta abantaila asko hegazkinean bidaiatzeko, baina dirua behar da. Hala ere, egonkortasun faltak nekatu egiten zaitu. Ezin duzu etxe bat erosi edo familia bat osatu. Egonkortasunik nahi ez duenarentzat lan perfektoa da.

**Alde txarrik ere izango du, ala?**

Bai, ordutegia gogorra da. Goizeko 3retan jaiki behar izaten nuen askotan. Orain, goizeko 3retan esna egoten naiz. Beste batzuetan, egun osoa mobila gainean nuela ibili behar izaten nuen, eta deitzen baninduten lanera joan. Askotan, gaueko 10etan abixatzen ziguten hurrengo egunean zein lan egin behar genuen esateko. Planak egitea zaila da.

**Gorputza nola ohitzen da hainbeste denbora airean egotera?**

Kirol asko egin behar da. Ni egunero joaten nintzen igerian egitera, eta hala ere, oso nekatuta sentitzen nuen gorputza. Jan eta edan egin behar da hegazkinean. Presioak izugarri nekatzen zaitu. Gero zurito bat edan eta mozkortuta sentitzen nintzen!

**Izan al duzu sustorik?**

Bai, behin Suediatik bueltan larrialdietarako ate bat apur bat irekita zegoela esan ziguten. Azkenean aurrera egitea erabaki genuen. Pixkat baxuago hegan eginez, bidaiarieri ezer esan gabe. Beldurra pasatu nuen, ate hura ireki izan balitz, ez zen inor libratuko.

**Dorre bikien atentatuaren ostean, segurtasun neurriak handitu dira?**

Baietz esaten dute, baina jendeak edozer sartzen du hegazkinera. Segurtasun probak egiteko poliziek pistolak sartzen dituzte, eta inor ez da konturatzen. Guk pertsona susmagarriren bat ikusten badugu, abisua pasatu behar dugu.

**Herrialde desberdinak ezagutzeko aukerarik izan al duzu?**

Normalean ez. Penintsulako bidaietan izaten genituen pare bat egun bertan egoteko, baina Suedia eta Norbegian, iritsi eta ordubetera bueltatzen ginen.

**Zer izan da bidaiari batek eskatu dizun gauzarik arraroena?**

Ni izugarri harritu nintzen bidaiariek edaten dutenarekin. Bidaia asko egiten genituen Norbegia eta Suedia aldera eta bertakoek mordoa edaten dute. Bakoitzak 5 whisky, 6 ardo eta 4 vodka eskatzen zizkidan, eta bost minututan, berriz eskean ziren. Sekulako mozkorrak harrapatzen zituzten. Batzutan gurpildun alkian atera behar izaten genituen, beren kabuz ibiltzeko gai ez zirelako, edo komunean konorterik gabe aurkitzen genituen... Behin bidaiari bat jo egin nuen. Zeharo edanda zegoen, eta errespeturik gabe hitz egiten zidan. Ipurdia ikutu zidan. Zorionez komandanteak arrazoia eman zidan.

**Itzuliko al zinateke Kanarietara?**

Ezta zoratuta ere! Hura Afrika da! Astebete oporretan egoteko oso ondo dago, baina hirian bizitzea oso desberdina da. Delinkuentzia eta pobrezia handia dago. Bizi kalitatea askoz bajuagoa da. Ez nintzateke itzuliko.

**Bidaiatzeko mediorik gustukoena?**

Hegazkina, dudarik gabe. Azkarra eta erosoa da, baina oraindik oso garestia. Nire amama harrituta gelditzen zen, Kanarietan lanean egon, eta edozein momentutan etxean agertzen nintzelako. Madrilera autoz joan nintzen lehengoan, eta oso luzea egin zitzaidan.

**Aurrerantzean, zein da zure asmoa?**

Euskal Herrian basea daukan konpainia baten azafata lana bilatzea gustatuko litzaidake. Gutxiago irabazten da, baina hemen bizitzeak konpentsatu egiten du. Familia, lagunak, giroa... askoz hobea da. Ezin badut honetan lan egin, beste zerbait aurkitzen saiatuko naiz.



# SUSANA MUJIKA

## EUSKADI IRRATIAKO ESATARIA

# «Entzuleei iritzia emateko aukera eskaini behar zaie»

*Susana Mujikak Iparragirre saria jaso berri du "Faktoria" irratsaioari esker. Kazetari elgoibartar honek, 1991an hasi zuen bere ibilbidea Euskadi Gaztean. Egun, Euskadi Irratian emititzen den "Faktoria" magazineko aurkezle eta gidaria dugu.*

**Euskarazko irratsaio onenarengatik jasotako sariak zer suposatu du?**

Taldean pozik jaso dugu sari hau. Orain artean buruturiko lanari babesa eman dio eta etorkizunean ere ilusioz lanean jarraitzeko animoak eman dizkigu.

**Zein osagai behar ditu irratsaio batek entzule leialak lortzeko?**

Gure ustez, saioan jendeak parte hartzeko aukera izatea garrantzitsua da. Entzuleek badakite "Faktorian" beren iritziek zein adierazpenek leku eta balio bat dutela. Honez gain, entzuleenganako gertutasuna transmititzea eta umore pixka bat barneratzea, beste bi osagai lirateke. Azken batean, saioak ez du aspergarria suertatu behar entzuleentzat.

**Esatari on baten ezaugarriak?**

Komunikatzaile ona izateaz gain, ofizio honetan pasioak paper garrantzitsua jokatzen duela iruditzen zait. Ahots ona eduki eta gaiak kontrolatu ezezik, jendearengana iristen ere jakin behar da.

**Ze eduki ditu Faktoriak?**

Saioaren lehen zatian tertulia bat edukitzen dugu. Bertan, gaurkotasunezko gaiak jorratzen ditugu, eta bizi garen tokian bizi garelako, sarritan politika nagusitzen da. Hala ere, gizarte gaiak lantzen saiatzen gara: errepideak, abiadura handiko trena, ekologia, etxebizitza, ekonomia, langabezia Ondoren, musika eta bestelako edukiak izaten ditugu.

**Nola definituko zenuke "Faktoria" irratsaioa?**

Saio irekia da. Gure filosofia, jendeari interesatzen zaion hori ematean datza, eta gure xedea, produktu duin bat eskaintzea da. Lantaldea oso zentratuta gaude eta hori transmititzen dugu. Horren erakusgarri da jendearen erantzuna.

> «Xabier Lete edo Mikel Laboa elkarrizketatzea gustatuko litzaidake»

**Zer dago faltan eta soberan egungo kazetaritzan?**

Soberan, komunikabide bezala ematen diren iritziak. Faltan botatzen dudana, berriz, pluralidadea da, ez horrenbeste agian Euskal Herrian, baina, bai kanpoan. Azken finean, komunikabideak, mota guztietako informazio eta iritziak helerazteko gaude. Hortik aurrera, iritzia, norberak sortu edo osatu behar duen zerbait da.

**Zein pertsonaia elkarrizketatuko zenuke gustora?**

Mikel Laboa eta Xabier Lete, ez baitute elkarrizketa askorik eskaintzen. Gisa berean, Xabier Arzallusi eginiko elkarrizketa berreskuratuko nuke, profesionalki erronka handi bat baita gizon hau elkarrizketatzea. Garai batean, Brasilgo lehendakaria, Lula Da Silva, elkarrizketatzen saiatu ginen, baina, ez genuen lortu. Hori ere bada, beste arantza txiki bat.

**Lanbide honek duen onena eta txarrena?**

Abantailei dagokionez, funtsean, asko betetzen nauen lan bat dela aipatuko nuke. Are gehiago, niretzat lantalde batekin gustora aritzea, plazer bat da. Okerrena, bestalde, ordutegia eta estresa dira. Lantaldean jende gutxi gara eta lan erritmoa, berriz, oso altua. Beti gertatzen da azken orduko ezustekoren bat eta, uneoro, adi egon beharra daukagu.

**Zer iritzi duzu tokian kokiko komunikabideen gainean ?**

Gure lanaren parte handi bat zarete. Guk euskarazko informazio ugari jasotzen dugu herri eta bailaretako aldizkarietatik. Euskal komunikabideak aipatzen ditugunean, gu konsziente gara herri aldizkariak hor zaudetela eta indartsuak zaretela.

ESTHER GURRUTXAGA

## VII. Musikaldia

# 3.000 musikari inguru bilduko dira Elgoibarren maiatzaren 14an

Euskal Herriko musikaren hiriburua izango da Elgoibar maiatzaren 14an. Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak (EHME) deituta, 3.000 ikasle inguru bilduko dira gure herrian Musikaldiaren zazpigarren edizioa ospatzeko. Euskal Autonomi Elkarteko 53 Musika Eskoletako ordezkarik parte hartuko dute lehiaketa honetan eta antolatzaileek aurreikusitako zifren arabera, guztira 6.000 musikazale izango dira festa eta kultura lotzen diren jardunaldi horretaz gozatzera etorriko direnak. Aurrekontua ere jaialdiaren parekoa izango da: 67.000 euro. Erakundeek eskainiko duten diru laguntza nahikoa izango ez denez, zozketa bat egingo dute. Antolatzaileek pentsaurrean aurreratu zutenaren arabera, aurtengoa beste edizioetatik ezberdina izango da, Musika Eskolan ikasten diren instrumentu gehienak bertan bilduko baitira. Elgoibarko herriak Algortaren lekukoa



hartuko du, bertan antolatu baitzuen Getxo Musika Eskolak 2003ko Musikaldia. Horren aurretik, Pasaia, Gernika, Santurtzi, Hondarribia eta Lezon egin da aipaturiko lehiaketa. Azkenik, antolakuntza lanetan jarduteko herritarren eta Musika Eskolako ikasleen gurasoen beharra izango dutela adierazi zuten arduradunek.

## Antton Alberdi

Euskaltzaindiak antolatzen dituen Azkue literatur lehiaketetan 3. saria irabazi du Antton Alberdi gazte elgoibartarrak. Bere idazlanaren izenburua "Harresi gorria" da eta bertan Marokoko neskatila gazte baten istorioa kontatzen du. Neska honek, amak bezala, prostituzioan hasi behar da bizitza aurrera atera nahi badu.

Honakoa ez da Anttonek irabazten duen estreinako saria. Izan ere, azken boladan Mendaroko Udalak antolatzen duen Idazlehiketan ere nagusitu da eta aurrez baditu beste hainbat sari poltsikoratuak. Esate baterako, Azkue Literatur saria bigarren aldiz irabazi du, aurreko batean gaztetxoen mailan nagusitu zen-eta.

18 urteko gaztea da Antton eta literatura eta bertsogintzaz gain, internet eta kirola ere gustuko ditu. Berak diseinatu ditu, esaterako, Morkaiko mendizale Elkartearen web orria eta baita www.eskalada.net ere. Datorren urtean Biologia ikasketak hasiko dituela esan digu.




**JOSE** *pinturak* **(Txema)**

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

Giauto
GIPUZKOA AUTOAK
Otaola Etor., 27
943 202500 · EIBAR
Karobi Pol., z/g
943 88 51 50 · OLABERRIA
clientes@giauto.es



AUTO BERA, MERKEAGO

www.chevrolet.es

Harreraráko telefonoa
902 345 225

CHEVROLET

ESKUBALOIA

# Bederatzi talde eta 156 jokalari ditu Sanlo Eskubaloi Taldeak

Sanlo Eskubaloi Taldeak inoiz baino talde gehiago ditu aurten, 9 talde. Infantil mailan osatu diren 2 talde berrieri esker, 156 neska-mutil ari dira eskubaloian jokatzen gure herrian. Egin beharreko lana eskerga da eta hainbat oztopo daude: entrenamenduak egiteko leku eta ordutegi arazoak, entrenatzaile falta eta 54.000 euroko aurrekontua. Jokalarien gurasoak daude zuzendaritzan eta taldeak entrenatzeaz ere arduratzen dira. Aurrekontua osatzeko ezinbestekoa da babesleen laguntza (ANTT Softlan, Cometel, Pagoaga, Pneumax, Tecnifuelle, Tecnomeca eta Urnobitza), Olaizagako publizitate estatikoaa, Udala eta aldundiaren laguntza eta gurasoek jartzen duten 125 euroak (60 euro infantilen gurasoek). Loteriarekin eta bazkide laguntzaileen ekarpenarekin ere lortzen da beharrezko dirua.

**Fruituak**

Senior mailako ANTT Softlan taldeko mutilek Aloña Mendiren aurkako partida 24 eta 19 irabazi zuten eta Territorial mailako lehen mailan arituko dira datorren denboraldian. Sanlo Elgoibar senior mailako nesken taldea ere sailkapeneko lehen postuan dago La Salle taldearen aurkako partida gol bakar bateko aldeaz irabazi ostean.


*Cometel Sanlo (Jubenil neskak)*


*Pagoaga Sanlo (Kadete neskak)*


*Tecnomeca Sanlo (Kadete mutilak)*


*Pneumax Sanlo (Jubenil mutilak)*


*Sanlo (Infantil neskak)*


*Urnobitza Sanlo (Infantil mutilak)*



ANTT Sanlo (Senior mutilak)



Sanlo (Senior neskak)




Tecnifuelle Sanlo (Senior mutilak)

## [ EMAITZAK ]

### Futbola

Haundi 0 – Beasain 1 (Inf. A)

### Areto Futbola

Kenci Elg. 2 – I. Sofa Intxaurrondo. 5 (Nazional B)

Lanbroa 5 – Eskolapioak 3 (1. maila)

Masriaren Lagundia 9 – Toletxe 5 (Jub.)

### Pilota

Udaberri Txapelketa

Lagunak 17 - Aretxabaleta 22 (Nag. 1. maila)

Lagunak 4 - Ilunpe 18 (Inf.)

### Eskubaloia

Urnobitza Sanlo 12 – Pulpo 29 (Inf. mut.)

Sanlo 20 – La Salle 19 (Sen. nesk.)

ANTT Sanlo 24 – Aloña Mendi 19 (Sen. mut.)

Tecnifuelle 21 – Axis 25 (Sen. mut.)

Tecnomeca Sanlo 19 – Urola 18 (Kad. mut.)

Muskiz 20 – Pagoaga Sanlo 14 (Kad nesk.)

Muskiz 13 – Cometel Sanlo 29 (Jub. nesk.)

Urola 24 – Pneumax Sanlo 20 (Jub mut.)

## [ AGENDA ]

### Areto Futbola Kiroldegian

Barixakua, 11

xxxx Lanbroa Elg. – Oiartzun (1. maila)

### Esku Pilota, Ikastolan

Udaberri Txapelketa

Barixakua, 18

22:00 Lagunak – Andatzpe (Nag. 2. maila.)

### Eskubaloia Kiroldegian

Zapatua, 19

16:00 Pneumax Sanlo – Atxuri (Jub. mut.)

17:30 Cometel Sanlo – Bera Bera (Jub. nesk.)

19:00 Pagoaga Sanlo – Bera Bera (Sen. mut.)

Domekia, 20

11:00 Sanlo – Leizaran (Inf. nesk.)

# Merkatua

## [ LANA ]

**ESKAERA**

Emakume euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ 943 74 34 78/699 85 81 93

Garbitzen edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 639 88 20 04

Emakumea nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943 20 68 41

Emakumea nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 662 01 66 30

Soldadorea eta 2. mailako ofiziala lanerako prest. ☎ 661 22 51 49

Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943 75 22 52 (21:00-22:00)

Bi emakume garbiketa lanak egiteko prest. Elkarteak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ 943 03 35 43/646 91 70 48

Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. ☎ 660 76 30 45

Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko . ☎ 606 612 834

Oporretako, ospakizunetako edota edozein motatako bideoak montatzen da. ☎ 617 24 26 60 (Nere)

Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo kamarera. ☎ 678 84 05 31

Gizonezkoa lanerako prest. Igeltsero, lorazain, kamarero... ☎ 678 84 05 31

Emakumea nagusiak, haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 661 175 180

Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ 690 70 11 18

**ESKAINTZA**

Neska behar da jatetxean eta barran lan egiteko. ☎ 635 75 16 42

Emakumea behar da nagusi bat zaintzeko asteburu, jai egun eta oporretan. ☎ 943 74 11 60

Esperientziadun kamareroa behar da, neska edo mutila. ☎ 615 72 34 80

Ibilgailuak garbitzeko neska edo mutila behar da. Gida baimena ezinbestekoa. ☎ 902 10 32 87

Neska euskalduna eta esperientziaduna behar da altzari dendan lan egiteko. ☎ 943 70 18 85 (Amaia)

Donostiako medikuntza estetika enpresa batek erizaina behar du. Gida baimenarekin. ☎ 902 181 969

Pertsona bat behar da buzoneoa egiteko. ☎ 686 04 53 21

## [ GARAJEAK ]

Garajea alokatzen da karakolean. ☎ 943 74 17 14

Garajea salgai Urasandin. ☎ 943 74 07 26 (21:00-22:00)

Garaje itxia alokatzen da Mendaron. ☎ 666 620 362

Garaje itxia alokatzen da Trenbide kaleko etxe berrietan.☎ 943 74 01 77

Garaje itxia alokatzen da. Berria. ☎ 943 74 02 68

Garaje itxia salgai Madalan. 28m$^2$. ☎ 646 50 28 66 (arratsaldez)

Garaje itxia salgai Ermuaranbiden, 19,90m$^2$. ☎ 943 74 28 75

## [ LOKALAK ]

Sigman lokal industriala eta bulegoak alokagai. ☎ 679 18 45 54

Lokala alokatzen da Altzolan. 166m$^2$ ☎ 943 19 19 52

## [ PARTIKULARRAK ]

Klase partikularrak ematen ditut. HH eta LH. ☎ 646 930 846

Ekonomia Zientzietan lizentziatua behar da finantzazko klase partikularrak emateko. ☎ 943 74 40 31

## [ ETXEBIZITZAK ]

**SALMENTA**

Apartamentua salgai Madalan. 46m$^2$. 3 urte. Egoera onean, oso polita. ☎ 943 53 11 02 (gauez)

Etxea salgai Errosario kalean. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko. 3 logela, komuna, egongela, despentsa, berogailu zentrala. Prezioa adosteko. ☎ 943 74 02 68/699 17 98 72

Etxea salgai erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. ☎ 699 29 36 13

Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m$^2$. Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia, garajea. ☎ 687 23 58 39

Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua. ☎ 677 780 680

Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 636 22 31 42

Etxea salgai Ubitarten. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua, altzari eta ganbararekin. ☎ 652 71 67 24

Etxe berria salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. ☎ 615 77 99 20

Pisua salgai Artetxen (Iñigez de Karkizano kalean). Berritua, altzariekin, dena kanpora begira. Ganbararekin. ☎ 627 94 12 61

San Roken etxea salgai. 95m$^2$, garaje plaza eta ganbara. 3 logela, sukaldea, bi komun, egongela eta bi balkoi. ☎ 656 70 29 59

Pisua salgai San Bartolome kalean. Altzariekin edo altzaririk gabe. 100m$^2$. ☎ 670 555 294

**ALOKAIRUA**

Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... ☎ 964 49 10 22

Peñiscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. ☎ 964 49 10 22

Apartamentua alokatzen da Saloun. Novelty eraikuntzan. Ekipatua, aire egokitua, igerilekua, garajea, terraza. 24 orduko harrera. ☎ 629 98 98 99 / 943 81 42 38

Conilen (Cadiz) apartamentua alokatzen da. Bateles hondartza ondoan. Ekipatua. ☎ 680 44 26 68

Logelak alokatzen dira San Roken. Sukaldea erabilgarri. ☎ 943 74 88 53

## [ SALEROSKETAK ]

Silvercross kotxe kapota salgai. Ia berria. ☎ 943 74 01 94 / 606 019 719

Arkoi itxurako izozkailua salgai. ☎ 943 53 18 39 (19:00-20:00)

Pentium 3 ordenagailua salgai. Prezio eta egoera onean. ☎ 658 71 08 73

Citroen Xsara autoa salgai. 5 urte. ☎ 678 80 35 35/639 180 184

Ordenagailua salgai. AMD 1000HZ, pantaila 17", eskanerra HP, inpresora HP. 4 urte, egoera oso onean. 600 euro. 150x50eko mahaia opari, gerezi eta urdin kolorekoa. ☎ 658 62 99 47

## [ BESTERIK ]

Hilaren 4an bufanda, eskularru eta txapela galdu nituen. Umeenak dira, lanazkoak. ☎ 943 74 09 87

San Frantzisko kalean aliantza bat topatu nuen hilaren 7an. Izena eta data jartzen ditu. ☎ 626 16 20 05


BARREN astekarian amatasun BAJA-ORDEZKOTZA BETETZEKO

**PUBLIZISTA BEHAR DA**

Eskatzen da:
- Harremanetarako dohainak
- Elgoibar edo inguruan bizitzea
- Informatika ezaupideak

Eskaintzen da:
- 5 hilabeteko egun osoko lan kontratua (ekainetik azarora)

Curriculumak jasotzeko azken eguna: apirilak 8

Informazio gehiago: 943 74 41 12 (Jasone)

BARREN astekaria, Nafarroa plaza, behea 20870 ELGOIBAR

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

# [ZORIONAK]



Martxoaren 29an bigarren urtebetetze zoriontsua igaro dezazula opa dizugu. Ikastolako laguntxoak.



Martxoaren 21ean urtebetetze zoriontsua igaro dezazula opa dizugu. Ikastolako laguntxoak



Zorionak **Unax** martxoaren 17an urtebete egin zenuelako. Gurasoen eta Xiker anaiaren partez.



Zorionak **Jone** hilaren 17an 10 urte egin zenituelako. Nahia, Ainhoa, Nagore eta familiakoen partez.



Zorionak **Carlos Gomez** hilaren 15ean 8 urte egin zenituelako. Vanesa eta gurasoen partez.



Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez **Julen.**



Zorionak **Alaitz** hilaren 20an 7 urte beteko dituzulako. Etxekoen eta bereziki, Iratiren partez.



Zorionak **Eider** hilaren 16an 4 urte egin zenituelako. Gurasoen eta Asierren partez.



Zorionak **Itxaso** hilaren 16an 14 urte bete zenituelako. Etxekoen partez.



Zorionak **Andoni** atzo, hilak 17, 9 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Leireren partez.



Zorionak **Roberto** bihotzez familiako guztion partez.



Zorionak **Danel** martxoaren 21ean 7 urte egingo dituzulako. Denon, eta bereziki Nahiaren partez.



Zorionak **Jurgi** hilaren 14an 3 urte egin zenituelako. Muxu bat aitxitxa, Imanol eta Andoni.



Zorionak **Maren** hilaren 19an 2 urte beteko dituzulako. Muxu bat Kakin eta Bean partez.



Zorionak gure etxeko bi sorgineri martxoaren 24an 3 urte beteko dituztelako. Ondo pasa, Nora, Ion, Ane eta Julenen partez.



Zorionak **Juner**i martxoaren 1ean urte bat bete zuelako eta **Nora**ri martxoaren 7an 5 urte bete zituelako. Familiakoen, eta bereziki beraien lehengusuen partez.


EAJ PNV — eusko alkartasuna EA

Hauteskunde Autonomikoetan

**KORREOZ BOZKATZEKO ZERBITZUA**

**Batzokiko berritze lanek jarraitzen duten bitartean:**

Aita Agirre Plaza, 5 (behea)
(Musika Eskolaren ondoan)
20870 Elgoibar

**Informazioa:** 943 53 05 30

**Ordutegia:**

***Goizez:***
Astelehenetik / Ostiralera
11:00etatik 12:00etara
***Arratsaldez:***
Astelehenetik / Ostiralera
19:00etatik 21:00etara

Elkartetxea
Jausoro Plaza, 4
20870 Elgoibar

**Informazioa:** 943 53 12 99

**Ordutegia:**

***Arratsaldez:***
Astelehenetik / Ostiralera
18:00etatik 20:00etara

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]

20 igandea DOÑA MERCEDES

24 eguena EIZAGIRRE

25 barixakua FOTERO

27 igandea IBARRENEA

28 astelehena BOLINTXO

## [ FARMAZIAK ]

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 18 | Fernandez | Fernandez |
| 19 | Bidasolo | Bidasolo |
| 20 | Bidasolo | Bidasolo |
| 21 | Zabaleta | Zabaleta |
| 22 | Etxeberria (Errosario) | Etxeberria |
| 23 | Ibañez | Ibañez |
| 24 | Ibañez | Ibañez |
| 25 | Ibañez | Ibañez |

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 26 | Yudego | Yudego |
| 27 | Yudego | Yudego |
| 28 | Yudego | Yudego |
| 29 | Zabaleta | Zabaleta |
| 30 | Etxeberria (Errosario) | Etxeberria |
| 31 | Ibañez | Ibañez |
| 1 | Bidasolo | Bidasolo |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK ]

| | Hilak 20 Erramo Igandea | Hilak 21 Astelehena | Hilak 22 Asteartea | Hilak 24 Ostegun Santua | Hilak 25 Ostiral Santua | Hilak 26 Larunbata | Hilak 27 Pazko Igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PARROKIAN | 11:00 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:30 Meza | 16:30/20:00 Adiskidetze ospakizunak (Euskaraz) | 16:30/20:00 Adiskidetze ospakizunak (Gaztelaniaz) | 10:00/12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza | 18:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna | 21:00 Bazko Bijilia | 10:30 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak |
| SANTA KLARAN | 9:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza | | | 17:00 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza | 9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz bidea 17:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna | 22:00 Bazko Bijilia | 9:30 Meza |
| MADALAN | 8:30/12:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza | | | 19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza | 10:00 Gurutz bidea 18:30 Jesusen heriotzaren ospakizuna | | 8:30 Meza |
| SAN LORENTZON | 9:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza | | 20:00 Adiskidetze ospakizunak | 18:30 Azken afariko ospakizuna | 20:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna | | 11:00 Meza |
| SAN ANTOLIN | 9:30 Hitzaren ospakizuna | | 21:00 Adiskidetze ospakizunak | | | | |

## [ 20 DOMEKIA ]

**10:00 "BIODANTZA"**
Egun osoan zehar
Aubixa baserrian

**18:00 LANDARBASO ABESBATZAREN EMANALDIA**
Azpilgoetako elizan (Mendaro)
Antolatzailea: Mendaroko Udala

## [ 24 EGUENA ]

**16:00 TAI CHI KUNG IKASTAROA**
Aubixa baserrian (egun osoan zehar)
Instruktoreak: Alfredo Landa Bidasoro eta Olatz Benito del Valle

## [ 25 BARIXAKUA ]

**19:00 JAIOBERRIENTZAKO IGERIKETA IKASTAROAK**
Gurasoentzako bilera
Olaizaga Kiroldegian
Izena emateko azken eguna: martxoaren 29a (Kiroldegian)
Ikastaroaren amaiera: ekainaren 4a (10 saio)

**22:15 ANTZERKIA**
Antzezlana: "Soliloquio de grillos" (estreinaldia Euskadin)
Taldea: Triclinium teatroa
Herriko Antzokian

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN
**«Los Padres de El»**
18, barixakua: 22:15
19, zapatua: 19:30-22:15
20, domekia: 19:30-22:15
21, astelehena: 22:15
**«Bob Esponja»**
20, domekia: 16:30
**«Ray»**
24, eguena: 19:30-22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Robots»**
18, barixakua: 19:30-22:15
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30
20, domekia: 17:00-19:30-22:30,
21, astelehena: 19:30-22:15
22, martitzena: 19:30-22:15
23, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO
**«Million dollar baby»**
18, barixakua: 19:30-22:15
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30
20, domekia: 17:00-19:30-22:30,
21, astelehena: 19:30-22:15
22, martitzena: 19:30-22:15
23, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «Los padres de él»



**Zuzendaria: Jay Roach.**
**Antzezleak: Robert De Niro, Ben Stiller, Dustin Hoffman, Barbra Streisand.**

Denbora iragan da eta asko kostata izan bada ere, Greg Fockerrek (Ben Stiller) Pam Byrnes (Teri Polo) neskalagunaren familiakoen konfidantza eskuratzea lortu du. Ezkontzako prestakuntzan buru belarri dabiltza, baina oztopo bat gainditzea falta zaie, bi ezkongaien familiek elkar ezagutu behar dute. Horretarako asteburu bat pasa beharko dute Fockertarrak bizi diren irlatxoan. Asteburu bat bakarrik izanik, zer gerta daiteke horren denbora gutxian?



**1953**. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Argazkian ageri direnak koadrila desberdinetako lagunak dira, baina denak Tiburzio Beristain tabernako bezeroak (gerora, Errezabal Pollería izan zen taberna hau). Zezenzale amorratuak ziren batzuk, eta Peña Parrita izena jarri zioten beren koadrilari, Parrita toreroaren omenez. Juerga ederrak egiten zituzten hauek. Argazki hau ere, bazkari baten ostean ateratakoa da. Ikusten den bezala, umore onean daude denak. Gogoratu ditzagun zein diren argazkian ageri direnak, esan beharra dago denak daudela hilda.

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Pedro Etxaniz, Jose Gabilondo, Luis Zubiaurre, Sabino Perea, Prudentzio Etxaniz, Sabin Osoro eta Isidoro Ondarza.**

2. Ilaran, ezkerretik eskumara: **"Parrita El vallisoletano", Pako Ondarza, Eladio Garate, Carlos Maturana, Jose Bedaio, "Manolo el bilbaino" eta Pedro Izagirre.**

Behean, ezkerretik eskumara: **Pedro Etxaniz, Marcelo Mendizabal, Anjelin Garcia eta Mateo Ondarza.**

---



**ESKERTZA**

2005eko martxoaren 10ean hil zen
*Jose Oteiza Agirregomezkorta*ren
emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**I. URTEURRENA**

2004ko martxoaren 23an, 72 urte zituela hil zen
*Pedro Izagirre Bilbao*ren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
igandean, martxoak 20, eguerdiko 12:30ean Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**
**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

Olatz

*Olatz Beitia Arriola*

**FISIOTERAPEUTA**

Gorputza bere osotasunean tratatzen da:

- Minarentzako tratamenduak
- Posturaren berreziketa
- Prebentzioa
- Erlajazioa
- Masajea
- Reiki

**BAZKIDEAK 20€**
**GAINONTZEKOAK 25€**

*"Nire eskuak zure esku"*



**Tel.: 696 821 149** **ELGOIBARKO KIROLDEGIA** **San Roke, 1**



Bankoarekin Bai
BANKOA HIPOTEKA MAILEGUA
Lehen 6 hilabeteetako interesa: % 2,75
Gainerako epean:
Euribor
+ 0,45
% 2,82 UTB
Tasazio balioaren % 80ra arte. Nomina helbideratzea. Etxeko asegurua. Bizitza asegurua. Bankoaren Aurreikuspen Planerako ekarpena: gutxienez, 600 euroko ekarpena egitea eskatuko da interes tasa berrikuspena egin aurreko 12 hilabeteetan. Interes tasa urtero berrikusiko da.
% 0,30eko irekiera komisioa, hileroko kuotak eta 30 urteko gehienezko epea.
UTB Espainiako Bankuak BOEn argitaratutako 2005eko urtarrilaren EURIBORaren (% 2,312) arabera kalkulatuta.
RBE Nº3647/04
bankoa
CRÉDIT AGRICOLE